



UBIESA

## **DIRU SARRERAK**

Aurretik aipatu dugun moduan funđa izango ditugu hasieran. Funđa normalak 40€ balioko ditu eta plus modeloak 60€.

Online bidez salduko ditugu, horregatik, online egin beharko da transferentzia. Ordainketa bakarreko diru sarrera edukiko dugu, funđa erosteko momentuan ordainduko dutelako. Enpresa handiek gurekin kontaktatzekotan eta kantitate handiak nahi izatekotan prezioa negoziagarria izango litzateke, bolumenagatik deskontuak eskainiko ditugularik (rappelak).

Beste mota bateko diru sarrerak ere lor daitezke, publizitate bidez, klienteak etor daitezke edota kapital zabalkuntza bat eginez beharrezkoa izango balitz...

Hasieran inbertsio handiak egin beharko lirateke kostuetan azaldu bezala eta 4 izanda sortzaileak partaidetza akzio kantitate berdinetan zabalduko genuke, bakoitzak akzioen %25 edukiko luke. Hasierako inbertsioaz gain momentu jakin batean diru gehiago beharrezkoa izango bagenu, kapital zabalkuntza egiteko aukera baloratu egin daiteke.

Hasieran mailegu bat eskatu egin beharko genuke, irabaziak izan harte mantentzeko.